

NIRE BIZITZAKO BIDAIA

Gaur eguna da, martxoaren 22a da eta nire lehen eguna izango da nire inguruetik, Piriniotik, atera eta leku berri bat bisitatuko dudana. Hegazkinean nago, abiarazten hasi da eta motorrak dardarka nauka. Bidaia luzea izan da, hegazkinak txundituta utzi nau, hegazkina biratzen, jaisten, igotzen zenean nabaritzen zenuen.

Lehen eguna: Hegazkinetik jaitsi gara, eta trena hartu behar dugu, trena jaitsi eta gero Berlinera iritsi gara baina ezin izan dugu ezer ikusi iluna delako, eta hostelera abiatu behar izan gara, azkenean hostelera iristen gara baina bidean.

Bigarren eguna: Goiz esnatu naiz, eta goikoa gosaltzen zegoen bitartean, ni pentsatzen nengoen ea zer egin behar nuen bost egun hauetan ez bustitzeko. Azkenean gosaltzeaz bukatu du eta kanpora atera gara, kanpoan euria egiten hasi da eta busti egin naiz, denbora pasata nire barruan putzu erraldoi bat sortu da eta alde guztietatik bustita nengoen, puntu batean uste nuen ito behar nintzela, baina azkenean goikoak, aterki bat erosi du eta apurka apurka uraren maila gutxinaka jaitsi egin da. Hostelera iritsi gara, azkenean oinak joan egin dira eta ni bakarrik nago, baina inork ez nau lehortu.

Hirugarren eguna: Berriro, goiz esnatu nau eta gosaltzera abiatu da, oraindik bustita jarraitzen nuen, atzo bezala euria egiten bazuen egun osoa bustia jarraituko nuen, baina kalera irten bezain laster haize-erroilu batek zeharkatzen nau eta ia lurretik igotzen nau, momentu batean lehortu nau. Gaur museo bat bisitatu behar genuen, hori ona zen, goikoa segidan nonbaiten esertzen zelako. Arratsaldean kaletik atera nintzen baina goizean baino oinetako pare gehiago daude, ez ditut hainbeste marka ikusi inoiz, edozein marka zegoen (Puma, Nike, Jordan, Adidas). Berlinetik bueltatxo bat eman dugu eta etxera bueltatu gara, baina gaur desberdina da, maletan sartu nau eta beste oinetako pareak atera ditu, hemen bukatzen da nire bidaia.

Bidaia gustatu zait, baina herria nahiago dut, herriko belarra, lokatza eta ez Berlingo kale zikinak alkoholez edo zaborrez beteta.

